Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa

Behin Betiko Onarpena

IV. Dokumentua - Azterketa ekonomiko-finantzarioa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

idom

2018ko apirila

BEHIN BETIKO ONARPENA – Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa

I. Dokumentua	Memoria
	I. Eranskina – Hiri plangintzarekiko afekzioak
II. Dokumentua	Dokumentazio Grafikoa
III. Dokumentua	Araudia
IV. Dokumentua	Azterketa ekonomiko-finantzarioa
V. Dokumentua	Ingurumen azterketa estrategikoa

IV. Dokumentua – Azterketa ekonomiko-finantzarioa (Behin Betiko Onarpena)

Azterketa ekonomiko-finantzarioa – Aurkibidea

1. Kostuen zenbatespena 1
1.1. Zepak heltzeko planta eta konpostatzeko edota biometanizatzeko planta (GIG2) 1
1.2. Sasietako transferentzia-estazioa 3
2. Finantzaketa 4
3. Gauzatzeko epeak 5

1. Kostuen zenbatespena

Gipuzkoako Hiri Hondakinei buruzko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa honetako azterketa ekonomiko-finantzarioaren helburua, aldaketan jasotako azpiegiturak gauzatzeko beharrezkoak diren inbertsio guztien kostua zehaztea da; eta horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, 12.artikuluaren c) apartatuan agindutakoa betetzea.

Hori horrela, aldaketan aurreikusitako azpiegitura ezberdinen kostua baloratu da, azpiegitura horiek nola garatuko eta gauzatuko diren begiratu gabe: zuzeneko kudeaketa sistemen bitartez, hiri hondakinak kudeatzeko eskumena duen organoak berak –Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa–, edo zeharkako kudeaketa sistemen bitartez, lankidetza publiko-pribatuko formulak erabilita (obra publikoaren emakida kontratuak).

Ebaluazio ekonomiko hau dokumentu honen irismenaren ikuspegitik egin dugu; hau da, kasuan kasuko dokumentu, plan eta proiektu teknikoak egitean finkatuko da behin betiko kostu zehatza.

1.1. Zepak heltzeko planta eta konpostatzeko edota biometanizatzeko planta (GIG2)

Zepak heltzeko plantak eta biometanizatzeko plantak osatuko duten multzoari Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 2. fasea (GIG2) esango zaio; eta, aurretratamendu mekaniko-biologikorako plantak eta energia balioztatzeko plantak osatzen duten 1.fasearekin (GIG1) batera, Gipuzkoako Ingurumen Gunea osatuko du.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak GIG2ren diseinua, eraikuntza, ustiaketa eta finantzaketa publikoki lizitatzea planteatzen da, eta Kontsortzioaren sozietate instrumentala den GHK, SAU sozietateak GIG2ren zeharkako kudeaketa egitea, emakiden ereduari jarraituz. Dena den, aurrerantzean ere GHK, SAU izango da tarifak kobratzeko eta sozietate emakidadunari ordainketak egiteko arduraduna. Hori horrela, emakidaduna arduratuko da digestio anaerobio lehorra egiteko eta zepen tratamendu mekanikoa egiteko teknologia aukeratzeaz, bai eta GIG2ri lotutako azpiegitura eta instalazio guztien diseinuaz ere, baina Ingurumeneko Baimen Integratuan etorkizunari begira ezartzen dien baldintzatzaileak zorroztasun osoz betez, betiere.

Hauek dira aipatutako azpiegituretan egin beharreko obrak:

- Bio-hondakinaren biometanizazio prozesua (digestio anaerobioa). Urtean 40.000 tona prozesatzeko gaitasuna izango du I. fasean, baina gero 20.000 tona/urte gehiagora iritsi daiteke, etorkizuneko premien eta hobekuntza teknologikoen arabera.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 1. fasean (GIG1) sortzen diren zepak tratatzeko eta heltzeko prozesua, 52.000 tona/ urte gaitasunekoa.

Ondoko taulan kapituluz kapitulu banakatuta ageri dira azpiegitura horien kostuak, **35.295.879,94 €** guztira.

KAPITULUA		ZENBATEKOA (€)
1	**LUR MUGIMENDU OROKORRA ETA OBRA ZIBILA**	**4.488.252**
2	**EGITURA ETA ITXITURAK**	**3.557.329**
3	**ESTALDURAK ETA AKABERAK**	**764.887**
4	**BIOMETANIZAZIO PLANTA**	**15.900.000**
	Aurretratamendu lehorra (ekipo elektromekanikoak)	
	Digestio anaerobioa	
	Biogasa tratatzea eta biltegiratzea	
	Deshidratatze sistema eta airea tratatzeko unitatea	
	Argindarra eta kontrol sistema	
	Kogenerazioko instaalzioa	
	Digestua biltegiratzea	
5	**ZEPAK TRATATZEKO ETA HELTZEKO PLANTA**	**3.410.000**
	Ekipo elektromekanikoak (hornitzea eta ezartzea)	3.410.000
6	**INSTALAZIOAK**	**5.410.956**
	Argindar instalazioa (Goi eta Behe tentsioa)	1.258.765
	PCI instalatzea	651.295
	I&C instalatzea	623.795
	Telebista-zirkuitu itxia, eta ahotsa eta datuak instalatzea.	123.295
	Aireztatzea eta usaingabetzea (bio-iragazkia, scrubber, mahuka-iragazkiak)	1.280.715
	Girotze sistema	156.295
	Instalazio/ekipo lagungarriak	1.316.796
	Hondakin urak tratatzea	1.001.574
	Baskulak	99.574
	Errekuntza lagungarriko sistema	94.074
	Aire konprimituko sistema	121.574
7	**USTIATZEKO MAKINAK ETA ELIKATZE EKIPOAK**	**1.113.292**
	Pala kargatzaileak (1)	125.000
	Errazteko makina industriala (1)	125.000
	Garabi-zubiak eta polipastoak	863.292
8	**BESTE BATZUK**	**264.000**
	Tailer elektromekanikoa	66.000
	Altzariak	33.000
	Laborategia	66.000
	Ingurumen zaintza (obren fasea)	99.000
9	**SEGURTASUNA ETA OSASUNA**	**210.972,41**
10	**KALITATE-KONTROLA**	**105.485,78**
11	**HONDAKINEN KUDEAKETA**	**70.705,75**
	GUZTIRA	**35.295.879,94**

Zifra horri tasak, zergak eta bisatuak erantsi behar zaizkio: 590.570 €.

Etorkizuneko premien arabera eta bio-hondakina tratatzeko sistemaren bilakaera teknologikoaren arabera, azpiegitura handitu beharko balitz ere, 7,36 M€ inguruko aurrekontu gehigarria aurreikusi da.

1.2. Sasietako transferentzia-estazioa

Aurreikuspenen arabera, azpiegitura horren eraikuntza kostua **773.500 €** euro ingurukoa izango da, honako honela banakatuta:

KAPITULUA		ZENBATEKOA (€)
1	LUR MUGIMENDUA	190.400
2	ERAIKINAK	333.200
3	URBANIZATZE LANAK ETA ZERBITZUAK	249.900
	GUZTIRA	**773.500**

GHK, SAUren bitartez zuzeneko kudeaketa sistema erabiltzea planteatu da, sozietate hori arduratuko baita azpiegituraren lizitazio, finantzaketa, ustiapen eta mantentze lanez.

2. Finantzaketa

GHHKPOko (2002-2016) Aurrerapen Agirian aurreikusitako inbertsioak, funtsean, Kontsortzioak hondakinen zerbitzua erabiltzen duten mankomunitateei kobratzen dien fakturarekin finantzatuko dira. Halaber, 2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauak aurreikusitakoaren arabera, bere eskumenekoak diren bideraketa-sareko azpiegiturak egiteak eragiten duen kostuaren % 33 Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko dio Hondakinen Kontsortzioari, azpiegitura horien balioa kontuan hartuta.

Azpiegituraren emakidadunaren ordainsaria (zeharkako kudeaketa aukeratuz gero), hala nola zuzeneko gastuak (zuzeneko kudeaketa aukeratuz gero) ordaintzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak behar duen iraunkortasun ekonomikoa eta, hortaz, aurrekontu erabilgarritasuna, sistemaren estatutuetan eta arauetan bermatua dago. Gainera, badaude kostu horiei aurre egin ahal izateko Kontsortzioak behar dituen sarreren nahikotasuna bermatzen duten printzipioak eta babesak.

Hori horrela, hiri hondakinen kudeaketarako Kontsortzioak jaso beharreko tarifa-egitura, Kontsortzioaren eta honen sozietate GHKren kostu guzti-guztiei aurre egiteko moduan eraikia dago, Kontsortzioaren beraren estatutuetan definituta dagoen bezala. Xede horri begira, tarifak doitzeko edo birkalkulatzeko sistema bat dago, eta urtero aplikatzen du.

Kontsortzioko Batzarrak zerbitzuei dagokien tarifaren kostua ezartzen du urtero, hainbat printzipio aplikatuz; besteak beste, zerbitzuaren kostu osoa estalduko dela bermatzeko obligazioa, horri diruz laguntzea saihestuz inondik ere, eta hondakinen arloan ezarrita dauden europar printzipioen aplikaziora joz horretarako. Era berean, tarifa bakarra da; horrela, gipuzkoar guztientzat zerbitzuen kostu berdintasuna bermatzen da, eta hondakina sortzen den lekutik tratamendu-zentroraino dagoen distantzia dela-eta kostuan bereizketarik izan dadin saihesten da. uko da batez ere. Bestetik, erantzukizun printzipioa dago, proiektuaren finantzaketarako, eta tarifaren diskriminazio positiboa; horrela, zerbitzuaren kostua murriztu egiten da, azkeneko tratamendura jo ordez berrrerabilpenean eta birziklatzean lortutako mailaren arabera.

Horrela bada, zerbitzua erabiltzen duten mankomunitateek Kontsortzioari ordaindu egin behar diote honek urtero zehaztutako tarifa; eta mankomunitateek, halaber, hartzen dituzten udalei jasanarazten diete kostu hori. Udalek, azkenik, zaborren zerbitzuari dagokion tasa herritarrei kobratzen die, hauek baitira zerbitzuaren azken onuradunak.

Beraz, ondoriozta daiteke oraingo egiturak eta sistema ekonomikoek bermatzen dituztela aldaketa hau bultzatu duten azpiegituren kostu operatiboei eta finantzarioei aurre egiteko sarrera nahikoak, azpiegitura horiek beren epe erabilgarrian ustiatzeko eta mantentze-lanak egiteko bezalaxe.

3. Gauzatzeko epeak

Azpiegitura	Obren hasiera	Obren iraupena
(GIG-2): Zepak heltzeko planta eta konpostatzeko edota biometanizatzeko planta	2018ko ekaina	12 hilabete
Sasietako transferentzia-estazioa	2018ko uztaila	8 hilabete